

IKASTOLA: Euskaraz ikasteko ola

Gau-eskolako arduradunak nekatuta zeuden batetik bestera ibiltzen euskarako eskolak emateko. Ondorioz, 1960an lokal bat erostea erabaki zuten. Orduko 75.000 pezeta behar ziren lokala erosteko. Bonoak salgai jarri eta 90.000 pezeta lortu zuten. Diru horrekin Loritoko lokala izenez ezagutzen duguna erosi zuten. Baina lokala iluntzetan bakarrik erabiltzea pena zela pentsatuta, egunez umeekin aprobeztatzea erabaki zuten.

Baina diru asko behar zen ikastola mantendu eta handitzeko. Felix Etxeberriak lagatako dokumentu batean ikusi dugunez, bi ondarrutarrek (Jose Mari Etxaburu eta Ixidor Etxeberria) diru dezente eman zuten Elgoibarko ikastolako ametsa bete zedin. Trukean, elgoibartarrak Lekeition, Markinan, Zarautzen, Arrasaten eta beste herri batzuetan ibili ziren Elgoibarren egiten zihardutenaren berri eman eta ikastolak zabaltzeko laguntza eskaintzen.


Ordurako, herriko euskaltzaleei ezaguna egiten zitzaien "ikastola" izena. Donostian eta Hernanin, adibidez, martxan zeuden ikastolak. Bi herriotan ikusi eta entzundakoak eman zien indarrarekin eta ilusioarekin, 1962ko maiatzean, Itziar Ajuriak eta herriko 29 umek Elgoibarko ikastolaren historiaren lehen orrialdea idatzi zuten.

•14• Hori hasiera baino ez zen izan. Gero eta ume gehiago hasi zen arrimatzen, eta, ondorioz, lokal eta andereño falta larria zen. Lokalak elizak laga zituen, baina andereñoak topatzea benetako lana izan zen: *"Kotxez, herriz herri, andereño bila pasatzen genituen larunbat eta igandeak. Herriak, baserriak eta harripeak ere begiratzen genituen andereño bila"*. Baina, kostata izan arren, topatzen zituzten, eta laster hasi ziren lanean Jone Etxabe, Mari Juli Conde, Nekane Aranburu eta Marisabel Mujika.

Ikastola ez zen legala. 1968-69ko bueltan, arazo bat baino gehiago izan zuten, eta 68ko abuztuan ixteko agindua ere iritsi zen Elgoibarko ikastolara: *"Cierre usted esa escuela clandestina porque no guarda la legislación vigente"*. Elizaren babes topatzea zen geratzen zen irtenbide bakarra. Elizak baietz, laguntzeko prest zegoela, baina baldintza batzuk betetzekotan: ikastola apolitikoa izatea, Espainiako legeak betetzea eta, hirugarrenik, konfesionala izatea. Hala, 1970eko abenduaren 3an heldu zen zorioneko baimen ofiziala; hori bai, Escuela Parroquial San Bartolomé izenarekin bataiatu behar izan zuten ikastola.

Geroago, 73an, ikastola berria egiteko erabakia hartu zen. Kooperatiba egitura hartu zuen, eta Elgoibarko Izarratik autonomo egin zen. Pedro Migel Urruzuno izena hartu zuen kooperatibak, Elgoibarren jaio eta Mendaron bizi izan zen apaiz euskaltzale eta idazlearen oroimenez.

*"Kotxez, herriz herri,
andereño bila pasatzen
genittuan larunbatak eta
domekak. Herrixak,
basarrixak eta harripiak
ere begiratzen genittuan
andereño billa".*



Itziar Ajuria izan zen ikastolako lehen andereñoa; 29 umerekin hasi zen.



Baina Itziarren atzetik, beste hamaika etorri ziren: Arantxa, Nekane, Antton, Txomin...



"Lehelengo umien gurasuen merittua izugarrixa izan zan"